

grafi-arauak ematea, arau hoieri jarraiki batasuna lortu dedin, hain gogoko dugun batasuna.

Gaur egun betetzen du, lehenengo aldiz, Institut honek bere egin-behar ahalsua, eginbehar batzaillea, katalan-hizkuntza idazteko ortografi-arauak zehaztuaz. Ta, lehenengo aldiz, gure erantzuna, katalan guztion planta zera izan behar du: gogo pertsonalak, iritziak, ohiturak, narda, argumentu ta eztabidak utzi; ta arau hoiek onartu bete-betean, bat-batean eta zintzoki.

Arau hauek eman baidezaioteke eman gure hizkuntza maiteari kultur-hizkuntza batek premiazko duen lehenen-lehenengo batasuna: ortografi-batasuna. Ta gure onartzea, denok bat-batean onartzea, elkartasun ta abertzaletasun-eredu izango da. Ta gaiñera landu ta zaildu egingo gaitu honek beste eginbehar zaillagoetarako.

Batasun hontara irixteko, Institut'a osatzen duten lagunek, bere bizitza guztiko ohitura ta zaletasunak utzi behar izan dituzte; hauek, idazle ospetsu izan askotxo ta, beren idazlanetan erabilitako ortografi-erak baztertzeko orduan, min hartu dute bere bihotz-barnean, heuren tradizioarekin, heuren lagunen tradizioarekin eta heuren eskolaren tradizioarekin austearen min bizia. Baiña denek, abertzaleki, heuren idazlan ta eskolaren batasuna beste batasun ederrago baten aldarean opaldu dute: nazio guztiko ortografi bakarraren batasuna.

Katalar hizkuntzak biltzen dituen gizonek oro jarrai dezaiotela erakutsi jator honi, ta, orduan, nazio osoaren ortografi bakarra ez da amets bat izango, egia bat baizik.

ENRIC PRAT DE LA RIBA

(1913-ko hilbetzaren 31-n VEU DE CATALUNYA'n argitaratua)

Euskeratzailea: **Iñaki Beristain**

MOSKERA — BOGOTA'n

BERRI-EMAILLEERI

Prentsa, irrati eta telebixtako jaunak:

Egun hauetan munduko lurralderik aldenduenetara Bogota urbiltzen ari zerate eta hemen egiten diran eukaristi ta eliz bibentziak askok jarrai dezaten errexten duzute. Nola eskertu serbitzu leial eta premiazko hau?

Ondotxo dakizute zuen lanbide-bokazioari dizkiogun itzala eta begiramenena. Guztion onaren alde lanegiteko erantzukizun bikaifia daukazute, betiere egiazko eta, justizia ta alkar-maitasuna gorderik, osoa izan behar duen informazioarekin: gizonaren eskubide jatorrak eta difinitasuna eta moral-legeak errespetaturik, hala notizia jasotzean nola zabaltzean.

Egia da, maiz, iritzi publikoa goibeldu edo grifiarazi egin ohi duten gertakizun mingarriak jaulkitzera behartuak zaudezela. Egia da ere, ordea, sarri asko, ona, ederra, barneko balioak, oharkabez pasatzen direla.

Ohartarazi zuek eta deskribitu itzatzute oraindik ere, zorionez, baretasuna, konfiantza eta imitagarritasuna dakarkiguten benetako adibide batzuk ba direla adierazten duten hitzekin. Pakeak, bertuteak, heroismo ixilliak, hauek ere ba dute beren kontakizuna: zaitezte zuek beren kronikari zeatzak eta arnas-emailleak.

Eta Bombay'n egin genuen bezela, hemen ere mensaje bat ematen dizuegu: nazioak armamentu-karrera utz dezatela. Dirutza izugarri hortatik, zati bat bederen, bizi-mailla negargarriera bazterturik dauden hainbeste herri naigabetzen dituzten prolema larriak arintzeko "fondo internacional" delako batera eman dezatela. Aizatu berriro iritzi publikoari dei hau.

Eta baita, esan, gure pentsamentu naigabetuan, gaurko egunotan baitipat, Txekoeslobakia'ko herriak daudela, ta ez gutxiago Asia ta Afrika'ko lurraldeak, gerrak zigorkatuak, eta heuren sufrimentu eta kezkek gure bihotz barru-barruan daramazkigula, gure eskeintza ta otoitzetan. Lurralde maitatu hoiene zorian erantzukizuna duten pertsoneri zuzentzen gatzaizkie, etengabe eskatuz, alegia, borondate onenarekin saiatu ditezela eta beren alegin guztiak eskeifni ditzatela erabakigabeko arazo astun hoiak zuzentzera, giza-pertsonaren eta nazioen eskubideen begirunean.

Zabal itzatzute, ba, zuek, justizia eta pakearen mensaje hauek. Gizonek eskertuko, dizue, eta Jainkoak doaziez beteko. Eta errezatuz, gizakume maiteok, apostolutar bedeinkapen bat ematen dizuegu.

PAULO VI AITA SANTUA

Euskeratzaillea: **Joan Mari Torrealday**